

## DIGLOSIAREN INGURUAN MIKEL ZALBIDEREN EKARPENAZ

**G**aur aurkeztu den *BAT* Aldizkariaren zenbaki bikoitz honek (79/80) aldizkariaren helburu nagusiari zuzen-zuzenean erantzuten dio, hau da, soziolinguistika esparruko ezagutza teorikoari bulkada ematea eta bozgorailu izatea, horrela, arlo teorikotik praktikarako zubiak egitea erraztuz. Baina, ikusiko denez, ez dio aldizkariaren ohiko moldeari jarraitzen, egiturari dagokionean.

Berezia da zenbakia, izan ere, azken urteetan euskal soziolinguistika arloko gai nagusienetako bati heldu dio Mikel Zalbide euskaltzainak, gai zentral eta monografiko modura lantzeko: *Diglosia*.

*BAT* aldizkariak, beste aldizkari berezitu askoren antzera, hainbat egileren ekarpenekin osatu izan ditu bere zenbaki monografikoak, euren ikerketa zientifikoan oinarritutakoak, garapen teorikoko planteamenduetan edota ekimen praktikoetatik sortutako artikuluak bilduz.

Oraingo honetan, aldiz, *Diglosiaren* inguruan Mikel Zalbidek idatzi du zenbaki honen muina den txosten ez-ohikoa. Apartekoa da txostena, bai bere luzeran -aldizkari zientifikoetan argitaratzen direnak baino luzexeagoa-, eta apartekoa bere sakontasunean.

Gainera, txosten horretan planteatzen diren gaiei erantzunez Euskal Herriko zazpi soziolinguistek eman diote erantzuna, artikulua laburren bitartez. Honakoak dira saio honetan parte hartu duten lagunak: Paula Kasares, Iñaki Martinez de Luna, Julen Arexolaleiba, Maria-Jose Azurmendi, Xabier Isasi, Lionel Joly eta Joxe Manuel Odriozola. Ez genuke aipatu gabe utzi nahi erantzun horiek izan dutela luzera-muga bat, aldizkari honek ezarritakoak, ezinbestean. Eta, horregatik, geure erantzukizuna da, muga hori izan ez balitz lor zitekeen emaitza eskaini ezin izana.

Zer dio ordea Mikel Zalbide euskaltzain eta soziolinguistak? Bere hitzak erabiliz **“Diglosiaren gaineko argitze-saioa izan nahi du txostenak. Helburu batekin, gure artean indarrean dauden ikuspegi nagusiak zehazteko eta, ahal izanez gero, bateratu litekeena bateratzen saiatzeko.”**

Diglosia terminoak esanahi desberdinak garatu ditu bere sorreratik soziolinguistika esparruan, baita nazio artean ere. *Diglosiaren* kontzeptuaren formulazio dibergenteak eta bateraezinak garatu dira han eta hemen, esanahi kontrajarrietara ere heldu delarik neurri batean.

Nazioartean ere egin izan dira bateratze-saiakerak, baina Mikel Zalbideren ustetan, eta baita gurean ere, horrek ez luke oztopo izan behar hemen planteatu den bateratze-saiakera honi ekiteko.

Esan daiteke *diglosiak* adiera tekniko bat izan duela, eta, bere ondotik adiera *popular* bat ere garatu dela. Beraz, *diglosiaren* esanahiaren inguruko adostasun batera heltzeko saiakera bat izan da honako hau.

Horretarako *diglosia* terminoaren jatorria eta ibilbidea argitu du Zalbidek txostenean. Grezian eraturako esanahia abiapuntu hartuta bere ibilbideari errebaso zehatza eman dio, Ferguson-ek 1959 urtean argitaraturiko artikulu mugarriri berebiziko lekua eginez. Ondoren, Fishman-ek proposaturiko ekarpen nagusiaz zentratu da Zalbide, Ferguson-ekin dituen gai komunak eta dibergentziak ondo bereiziz. Txostenak jarraipena hartzen du Herrialde Katalanetatik datorren *Menderatuen diglosiaren* bidea erakutsiz, bere indarguneak eta ahuleziak bananduz, batez ere, Valentziatik datorren soziolinguistikan begirada jarriz: Aracil, Ninyoles eta abar. Eta, zer esanik ez, Euskal Herrian *diglosia* terminoak izan duen garapenari begirada erabat sakona eskaini digu. Tartean, ordea, sona handiko beste soziolinguista askoren ekarpenak ere bildu ditu Zalbidek: Boyer, Kremnitz, Lafont edota Marfany, besteak beste. Azken finean, soziolinguistikaren diskurtsoan zentratu nahi izan du gehiago, albo batera utzirik diskurtso politikoan terminoari ematen zaion erabilera. Horretarako, terminoak dituen ezaugarriak eta osagai nagusiak argitzen saiatu da.

Zehatzago adieraziz, Ferguson-en eta Fishmanentzat diglosia hizkuntza baten bi aldaeraren edo bi hizkuntzen arteko harremanez ari direlarik, biek hizkuntza edo aldaera bakoitzaren konpartimentazio sozio-funtzional egonkorraz hitz egiten dutela azpimarratu nahi izan du Zalbidek.

Azterketa eta garapen semantiko horren arabera egin du Mikelek bere diagnostia, galdera zehatzei erantzunez: “Egoera diglosikoan al gaude? Gero eta egoera diglosikoagoan? Zein da gure egoera konkretua?” Era berean, *diglosiaren* formulazio berrituaren inguruko saiakera garrantziko bat egin du euskara indarberritzeko orduan egoera ezinbesteko ikusten baitu. Beraz, amaitzeko, terminoaren birformulatze bat planteatzen du, eta bere garrantziaz ohartu nahi du euskararen indarberritzeko orduan. Horretarako, balizko aukera desberdinen artean hausnarketa proposatzen du, etorkizuneko egoerak irudikatuz.

Mikel Zalbideren saiakerak izan du erantzuna gonbidatu ditugun gainerako iruzkin egileengan, eta emaitza, horrelako saioretan izan ohi den modura, kontuan hartzeko modukoa da. Zalbideren hitzak erabiliz: “Gauza batzuetan aurrera egin dugula ikusten da argi. Diglosiaz ari garela zertaz ari garen, eta zertaz ez, lehen baino ondotoxoz errazago

uler dezakegu, orain diskurtso soziolinguistikoan ari garenok. Diglosiaren adostasun terminologikora heldu gara.”

Gure ustez, helburu hori betetzeak hasierako erronkari erantzuten dio bete-betean. Besterik da, egoera horren aurrean baloraziotan nolako adostasunetara heltzeko gai izan garen. Nolanahi ere, *BAT* Aldizkariarentzat erronka honi heltzeko aukera izateak berebiziko poztasunerako arrazoi izan da, eta guztion pizgarri izango delakoan eskaintzen diogu irakurle orori.

Belen Uranga, BAT aldizkariko koordinatzailea

2011-12-23